


B euskararen BERRIPAPERA

Euskara sustatzeko dirulaguntzak

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politika-rako Sailordetzak urtero egiten dituen deialdien emaitzak kalean dira jadanik. Datorren urterako deialdiak, 1997ko otsaila baino lehen kalean izatea espero da.

Teknologia berriak
24.000.000 pta.



SUMARIOA

- 1 Euskara sustatzeko dirulaguntzak**
- 2 Laburrak**
Linda White
Kontuan hartzeko
- 3 Euskararen Aholku Batzordea**
Durangoko XXXI. Azoka
- 4 Izen-abizenez**
Lehen begiratuan
Euskararen erabilera lan-munduan

Teknologia berriak

Aurten lehenengo aldiz kaleratu da teknologia berrien esparruko deialdia. Honen xedea, euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei baliatzen diren enpresa eta elkarteak diruz laguntzea da. 10 proiektu aurkeztu dira

Euskal Autonomi Elkarteo 6 enpresa eta elkarteren eskutik; horietatik 4 proiektu hauek jasoko dute laguntza:

- ✓ Kapsula proiektua *Ametzagaina AIE.*
- ✓ Euskal Herriko Museoak CD-ROMa. *Aurten Bai.*
- ✓ Ezagutu gure Herria CD-ROMa. *Elhuyar Kultur Elkarte.*

✓ Olleriasako Buztingintza Museoa CD-ROMa *Eskoriatzako Irakasle Eskola.* 3.493.213 pta. ez dira banatu, aurkeztutako hainbat lan ez baitzaizkie ondo egokitzen aginduak zehaztutako dirulaguntzagaiei.

Euskalgintza

Euskalgintza izeneko deialdian, 87 proiektu aurkeztu dituzte 60 elkarte eta enpresek eta horien artean 49 lagundu dira diruz.

Proiektu desberdinen arteko lehenetsunak finkatu dira, kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna kontuan.

- Monitorean prestakuntza eta materialgintzarako: *E.D.E., Txatxilipurdi eta Elgoibarko Izarra.*

- Euskarazko materialak aisialdirako: *Berbaro eta Idatz.*
- Euskararen jarraipena ziurtatzekoak: *Ttakun.*
- Erabilera-programak: *Arlan, Artez, Bagera, Berbaro, CAF, Dobera, Doika, ELAY, Euskarri, Guezan Ba! eta Jardun.*
- Irakurzaletasuna euskaraz: *Bagera, Euskal Idazleen Elkarte, Hezibide eta Egunkaria.*
- Euskalkiak sustatzekoak: *A.E.D. eta Euskerazaintza.*
- Ospakizunak: *Gaztelueta Fundazioa eta Gesaltzeko Taldea.*

- Bestelakoak (Ikerketak, ikastaroak, irriatiak...): *Araldi, Arrasate Euskaldun Dezagun, Arrate Irratia, Bizkai Idazle Alkartea, Deustuari Euskara Dariola, Dobera, E.D.E. Ekin Emakumeak, AED, Eta Kitto!, Euskal Aktoreen Batasuna, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Euskara bila, Geu Irratia, Hitzaro, Irratibide, Joakin Arana Loramendi elkarte, Kili-Kili, Klaudio Harluxet, Laixan, Paperzaleak, Telezerbitzuak, UEU, Zenbat Gara, eta Zintzo Mintzo elkarte.*

Aldizkarigintza

Euskarazko aldizkako argitalpenak sustatzeko deialdira 42 aldizkari aurkeztu dira eta horietatik 38k jaso dute dirulaguntza.

Kasu honetan dirua banatzeko irizpideen artean aldizkariaren kalitatea, autofinantzaketa-maila, aldizkariaren lan-egoera eta beste erakunde

publikoetatik jasotako dirulaguntzak hartu dira kontuan.

Bi motatako aldizkariak jaso dute laguntza: Euskal Herri osoan zabaltzen direnak eta herri mailakoak.

► **Euskal Herriko aldizkariak:** Aizu!, Argia, Bai, Bertsolari, Elhuyar, Ipurbeltz, Jakin, Karmel, Kili-Kili Xirrixta/Kometa.

► Herrietakoak:

Aiurri, Aretxagazeta, Arrasate Press, Baleike, Berrigara, Bizarra Lepoan, Drogeten iturri, ElgoiBARREN, Ene Bada!, Eraz, ...eta kitto!, Galtzaundi, Geu Gasteiz, Goibekokale, Goierriarra, Irunero, Irutxulo, Karkara, Lau Haizetara, Noaua! Otamoiz, Santa Mariñe, Txintxarri, eta Zer.

LABURRAK

Literatura Unibertsala

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak (EIZEK) dituen ekintzen artean, literatura unibertsaleko 100 obra itzultzeko proiektua, *Literatura Unibertsala*, da gure artean ezagunena. Itzulpen programa hau Eusko Jaurlaritzak finantziazten du hitzarmen baten bidez 1989az geroztik. Urte horretan jarritako helburua geroz eta hurbilago dugu, beste bost titulu, bildumaren 51-55 zenbakiak, kaleratu berriak baitira.

Jane Austinen *Pride and Prejudice* izan da bost titulu horien artean lehenena; Ana Isabel Morales bilbotarrak burutu du itzulpena (*Harrotasuna eta Aurrejuzkuak*). Joxan Elozegi Arregik egin du Raymond Queneau-ren *Zazie dans le métro* obraren itzulpena (*Zazie metroan*). Luzio Apuleioren *The Golden Ass* (*Urrezko astoa*) obra Juan Kruz Igerabide eta Anjel Lertxundik itzuli dute. Bildumako 54. zenbakia berriz, Marguerite Durasen *L'Amant* (*Maitalea*), Mikel Garmendia Ugartek itzuli du. Azkenik, Aleksandr Sergeievitx Pushkinen *Kapitánskaia dochka* (*Kapitainaren alaba*) izan da 55. zenbakia eta Jose Morales Belda izan da itzultzailea.

HitzaHartu aldizkaria



Euskararen arloan aritzen den Deustuko *Deustuari Euskara Dariola* taldearen herri aldizkari bat martxan jartzeko ideari atxikirik, bertako gazte batzuek lekukoa hartu eta *HitzaHartu*

aldizkaria jarri dute abian. Dagoeneko hiru ale kalean dira.

Bere helburuen artean, euskara bultzatzea da nagusia. Informazioa euskara hutsez emango da, bertan eta bertako berriek lehentasuna izango dute. Hurbileko gaiak lantzen saiatuko dira, bertako herritarren kezkei erantzuna emateko asmotan. Aldizkaria hiruhilabetekaria da eta dohainik banatzen dute; nahi duenari harpidedun izateko aukera ere ematen zaio.

Publizitatea eta norbanakoen aportazioak ditu diru-iturri nagusi. Oraingoz zenbaki bakoitzetik 1.000 ale kaleratu dituzte, hauetatik 800 bertako biztanleen artean banatzen dira eta beste 200ak denda, elkarte, eskola eta antzeko lekuetan.

LINDA WHITE

Renoko Unibertsitateko Euskal Mintegian irakaslea da; bertan ikasi zuen euskara Linda White eta, ordutik, euskararen irakaskuntzak eta euskarak historian zehar izan duen garapena ditu ikerbide nagusiak. Berriki XX. mendeko emakume idazleen inguruko doktorego tesia irakurri du. Euskal literaturaren *herstoria* egin nahi izan duela esan ohi du Lindak; emakumeen begiez berridatzi nahi izan du euskal literaturaren historia. Irakasle kaliforniarraren hitzetan, berebiziko lana egin duten arren, euskal emakume idazleen lanak ez du sekula kritikoen eta irakurleen txalorik jaso; bere hitzetan, egindako lan ixilagatik emakume hauei zor zitzairen omenalditxoak ere bada plazaratu berri duen ikerketa.



Bere aburuz, euskal literaturaren erabateko historia idatzi gabe zegoen orain arte; euskaraz idatzi duten emakumeak aipatu gabe, izan ere, historia hanka motz geratu da. Bizenta Antonia Mogelen lehen lanetik hasita, gaur kaleratzen diren lanetaraino, bilketa lan handia egin behar izan du Linda Whitek. Guztira, mende honetan bere lanak argitara eman dituzten emakumeen zerrendak 121 izen biltzen ditu, horietarik 43 Espainako Gerra Zibilia baino lehenagokoak. Euskal literaturaren zenbakiari erreparatuz gero, emakumeak % 35,6 direla ondorioztatzen

du Whiteren ikerketak. Kopuru horiek kontuan izanda, beraz, bere lanak mitoa gezurtatu duela dio irakasleak; ikerketa honek argia ikusi duenez geroztik, bada, ezin liteke esan emakume bakan batzuek idatzi izan dutela euskaraz. Amaitzeko, irakasle kaliforniarrak etorkizunean emakumeek izango duten egitekoaz ere hausnarketa egin du. Bere hitzetan, emakumeek lan eremu berriak jorratu beharko dituzte, marjinaziotik ateratzearren; uste denaren kontra, haur literaturaz landa ere emakumeek zeresan handia dutela dio Whitek.

KONTUAN HARTZEKO

Koldo Mitxelena Saria

Koldo Mitxelena Saria Eskolarteko 8. Lehiaketa antolatu du Donostiako Euskararen Udal Patronatuak. Bertan, Lehen eta Bigarren Hezikuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek hartu ahal izango dute parte. Olerkia, ipuina, bertso-papera eta komikia dira lehiaketako lau sailak. Kategoria eta lehiaketa guztien artean, guztira 20 sari emango dira. Lanak, urtarrilaren 17a baino lehen entregatu behar dira patronatuaren egoitzan.

Mugen gainetik hilabete kulturala

Muga guztien gainetik kultura bat eta herri bat dela erakusteko, Azkaine, Bera, Sara eta Zugarramurdiko lau herri-elkarte berriro bildu dira azaroaren 29tik abenduaren 29ra bitartean hilabete kulturala antolatzeko. Aurten *Atxuriatik Larrunerat* leloa hartu dute. Besteak beste, antzerkia, kantaldiak, mintzaldiak, dantzaldiak, lehiaketak eta erakusketak izango dira lau herrietan hilabete osoan zehar. Haurrek ere izango dute parte hartzeko aukera, literatur lehiaketa baten bidez, hain zuzen ere.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Abenduaren 3tik 12ra, Tolosan
Abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra, Bilbon,
Umeentzako Gabonetako Parkean (PIN)

Euskararen Aholku Batzordearen Iana aurrera doa

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia proposatzea eta proposamenaren betetze-maila jarraitu eta ebaluatzea dira gaur egun Euskararen Aholku Batzordeak aurrean dituen egiteko nagusiak. Helburu horiek lortzarren, azken hilabeteotan EABko kideak urratsak ematen ari dira; horrela, eta Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Dekretuan aurreikusten zen bezala, Toponimiako batzorde atal bereziaz gain beste hiru sortu dira. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak

batzorde hauek lanean hasteko beharrezko dituzten oinarriko txostenak eskatu dizkie horretarako izendatu diren txostengileei.

Txostenak urtea bukatu baino lehen izango dira eginak, eta batzorde ataletako kideen iruzkinak eta oharrek, otsailerako eginak izatea espero da.

Hona hemen batzorde atal horien izenak eta bakoitzari dagozkion txostenak:

Euskara geroratzea familiaren eta eskolaren bidez

- Euskararen bilakaera Ipar Euskal Herrian
- Euskararen bilakaera Nafarroan
- Hizkuntzaren kalitatea
- Familia bidezko jarraipena
- Hiztun berriak irabazi eskolaren bidez
- Hiztun berriak irabazi helduak euskaldunduz

Komunikabideak eta kulturgingintza


- Euskara biziberritzeko nola baliatu telebistaz
- Euskara biziberritzeko nola baliatu irratiaz
- Kulturgingintza eta ikusentzunezkoak euskaraz
- Euskarazko prentsa
- Euskarazko liburugintza

Erabilera-planak

- Udalerri euskaldunetako egoera
- Gazteen aisialdia
- Kirola eta euskara
- Euskara lan munduan
- Euskara eta teknologia berriak
- Administrazioa euskaraz
- Euskararen erabilera erlijio munduan

DURANGOKO XXXI. AZOKA

Itxura erabat berriturik dator aurtengo Durangoko Azoka. Abenduaren 5etik 8ra bitartean, euskarazko produkzioaren topagune izango da Durango. Bertara hurbilduko diren guztiak berehala ohartzeko dira aurtengo berrikuntzez. Batetik, ohiko kokapena, Azokako Plaza, utzi eta Durangoko frontoiaren parean dagoen orube zabalean kokatuko da aurtengo azoka, 3.300 m²-ko karparen babespean guztira, 185 erakusmahai ezarriko dira bertan. Aurtengo lehen aldiz, teknologia berriei eskainitako atal berezia antolatu dute Durangon. Besteak beste, teknologia berriei baliatuz egindako lanak ikusgai izango dira. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak atal hau ere babestuko du. Horrez gain, munduko edozein



bazterretatik jaso ahal izango da azokara aurkeztutakoaren berri, Gerediaga Elkartek eta Eusnet enpresak lortutako akordioari esker, Internet sarean zabalduko baita Durangoko azokaren oihartzuna.



Gorka Arana

Gorka Arana Momoitiok *Zenbait fenolen eutsitako mintz likidoen zeharreko garraioaren azterketa* izeneko doktorego tesia aurkeztu zuen irailaren 27an Leioako Zientzi Fakultateko gradu-aretoan. Ondoko kideek osatutako epaimahaiari aurkeztu zion bere tesia: Miguel De Laguardia mahaiburua (Valentziako Unibertsitateko Kimika Analitikoko katedratikoa), Juan Manuel Madariaga eta Ramon Barrio (Euskal Herriko

Unibertsitateko irakasleak), Agustin Garcia (Sevillako Unibertsitateko irakaslea) eta Jordi Coello (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea). Bilbon jaio zen Gorka orain dela 28 urte. Leioan burutu zituen Kimika ikasketak eta bertan lizentziatu ere. Egun, Europako Elkarteak emandako doktoratu ondoko beka bati esker, Belgikan dihardu bere ezagutza zabaltzen.

Jon Azkargorta

Jon Azkargorta Aretxabala irakasleak *Neodimio (3+) Ioiaren Igorpen Espontaneo eta Estimulatuaren Espektroskopia Matrise Desordenatuan* izeneko doktorego tesia aurkeztu zuen uztaillaren 11n Bilboko Ingeniarren Eskolan euskaraz eta bat-bateko itzulpenaz lagunduta. Epaimahaiaik hala erabakita, *cum laude* goraipamena jaso zuen aurkeztutako lanak. Algortan (Bizkaia) jaio zen Azkargorta duela 33 urte eta Leioako Zientzi Fakultatean Fisikan

lizentziatua da. Egun Fisika Aplikatua saileko irakasle laguna da Bilboko Ingeniari Eskolan. Honakoak izan ziren epaimahaikide: Francisco Jaque (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle katedraduna), Jean-Luc Adam (Rennes-ko C.N.R.S.-ko ikerlaria), José Maria Virgós (Oviedoko Unibertsitateko irakasle katedraduna), José Garcia Solé (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle titularra) eta Erika Macho (Bilboko Ingeniari Eskolako irakasle titularra).



Euskararen erabilera lan-munduan

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolatuta lan-mundua eta euskarari buruzko mintegia egingo da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, abenduaren 12an. Mintegi honen helburua lan munduko (bai administrazioko bai enpresa pribatuetako) erabilera-planetako metodologia aztertzea da. Josune Ariztondo sailburuordeak egingo duen sarrera batekin emango zaio hasiera bilerari; goizez enpresa pribatuetako planen azalpena eta arratsaldez administrazioko planen azalpena egingo da. Siadeco, HABE, ARTEZ eta Elhuyar izango dira enpresetako esperientziaren berri emango duten taldeak. Administrazioan martxan dauden planen berri, aldiz, Arantza Aurrekoetxeak, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak, HPSko teknikari batek eta Antzuolako eta Bergarako teknikariek emango dute. HPSko teknikariak lan-munduan erabilitako metodologian oinarrituz administrazioari egokitutako erabilera-planen eredia aurkeztuko du.

Lehen begiratuan

Azala ikusita hala pentsa badezakegu ere, ez gaude Asterix eta Obelixen komiki berri baten aurrean. Ttarttalo argitaletxeak liburu honetan haurren aisia eta hezkuntza uztartzeko ahalegina egin du. Obelixek berberak ume bizkor eta gozozaleentzat aukeratutako *Galiako gozoki gozoen* bidez, etxeko txikienak sukaldara hurbiltzeko ahalegina egin nahi izan dute. Gabonetako oporrak aprobetxatuz, etxeko epelean, txokolate, sagar, limoi-tarta, bizkotxoak edo opil eta pastelxoak egiten ikasteko aukera ezin hobea da liburu tentagarri hau. On egin diezazuela!



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

 Helbidea:

 Herria:
 Kodea:
 Lurraldea:
 Tel.: